

Taldeak egindako zerga-ekarpena **420 milioi** eurotik gorakoa izan zen iaz

## **Kutxabankek 330,5 milioi euroko irabaziak lortu zituen 2022an**

- Zerbitzuen diru-sarrerak % 1,3 hazi ziren, nahiz eta merkatuek hegazkortasun handia izan eta honek balantzetik kanpoko baliabideetan eragin handia izan
- Merkatuko ondareen laugarren kudeatzaile finkatu da, eta inbertsio funtsetan harpidetza garbi gehien lortu duen hirugarren taldea izan da
- Erakundeen eta enpresen Handizkako Bankak kreditu-inbertsio produktiboa 46.519 milioi euroraino igoarazi du
- Ustiapen-gastuak KPlaren azpitik hazi dira, % 1,4, eta hornidurretara eta zuzkidurretara baliabide handiak bideratzen jarraitu du, guztira 232 milioi euro
- Berankortasun-tasa alorreko txikiena da, % 1,37koa, eta zalantzazko aktiboen bolumen osoa % 27 murriztu da, 686 milioi eurotan zehazki
- Kalitate goreneko kaudimenean alorreko lehen postuan jarraitzen du, % 17,6 CET 1 phased in mailan, kudeaketa-adierazle nagusietan ezarritako helburu guztiak bete ondoren
- Kaudimenean eta kapitalean duen posizio sendoari esker, 2022an 323 milioi euro inguru banatu ditu akziodun dituen Fundazioen artean

**2023ko otsailaren 25ean.** Kutxabank Taldeak **330,5 milioi** euroko irabazi garbiarekin itxi du 2022. urtea, 2021ean baino % **52,7 gehiago**, 420 milioi eurotik gorako zerga ekarpena egin ostean. Ekarpene horri aurre ordainduriko bankaren-zerga berria gehitu zaio. Emaizta hau 2019an, pandemia baino lehen lortutakoa baino txikiagoa da, 25 milioi eurotik gora txikiagoa.

Kutxabank lurraldearen hobekuntza ekonomiko eta sozialarekin errotuta dagoen erakusle da urtean zehar akziodun bakar diren Fundazioen jasotako ekarpena, hain zuzen ere **322,7 milioi** eurokoa, aurreko ekitaldietako irabazi eta erreserben kontura. Gainera, Administrazio Kontseiluak proposamena onartu du 2022ko emaitzen gaineko **dibidendua berriro % 60koa** izateko, **198,3 milioi eurokoa** beraz.

Kutxabanken emaitzak **Anton Arriola** presidenteak eta **Javier García Lurueña** zuzendari nagusiak aurkeztu dituzte, goizean Donostiako Kursaal Biltzar Jauregian egin den zuzendaritzako urteroko bileran. Bertan, bankuko akziodunen Fundazioetako presidenteak eta Kutxabankeko eta Cajasureko Administrazio Kontseiluetako kideak ere izan dira.

Arriola presidenteak **positibo iritzi dio** 2022an zehar Erakundeak bizi izan dituen zailtasunei aurre egiteko izan duen gaitasunari, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrak aurreikuspen ekonomikoen norabidea erabat aldatu baitu, eta ekitaldia baldintzatuta egon baita familiak eta enpresak estutu dituen **inflazio** handiarengatik, eta hazkunde ekonomikoaren moteltze nabarmenarengatik.

Finantza-merkatuek izan duten **hegazkortasun nabarmenak** kudeatutako aktiboen balorazioan jaitsierak eragin ditu, finantza-alorrak **errentagarritasun txikia** izaten jarraitu du, eta ez da gai izan **kapitalaren kostua** estaltzeko, nahiz eta interesen mailak gora egin.

Testuinguru horretan, Anton Arriolak azpimarratu du "**hazkunderari eta diru iturrien dibertsifikazioari eragiten dien hausnarketa estrategikoa hasi dugu. Ez da eragiketa korporatibo konplikatuei buruzkoa, ez baitago halako asmorik. Gure negozio arloak modu organikoan sendotzeko aukera argiak dauzkagu. Zorionez, aukera horiei aurre egiteko baliabideak eta gaitasunak ere baditugu, gure DNA eta gure kultura mantenduz, baina aurrerantz urrats bat gehiago emonez**".

Kutxabankeko zuzendari nagusiak, Javier García Lurueñak nabarmendu du "**testuingurua gorabehera, Erakundearen jarduera komertziala oso sendoa izan da, eta horrek bere adierazle nagusiak nabarmen indartu ditu, hala nola, eraginkortasuna, kaudimena edo berankortasun ratioak, kudeaketa pertsonalizatua eta espezializatua gure negozio-ereduaren euskarrietako bat izanik**".

## Ekitaldiko gakoak

**Banku-negozio tipikoaren** bilakaera positiboa erabakigarria izan da Kutxabanken emaitzan. **Zerbitzuengatiko eta aktiboen kudeaketagatiko** diru-sarrerek % 1,3 hazten jarraitu dute, merkatuen presioa gorabehera. Tasen normalizazioak interes-marjina bultzatu du, baina oraindik ere Bankuak berak bere sorrera-urtean, 2012an, lortutako mailaren % 30 azpitik dago.

**Aseguru-negozioak** bere ohiko sendotasunari eutsi dio urte osoan, eta guztira **172,6 milioi** euroko ekarpena egin du emaitzen kontura, aurreko ekitaldian baino % 7,7 gehiago.

Ikaragarri lehiakorra den ingurune komertzialean, Kutxabankek bere merkatu-kuotak finkatu ditu **balantzetik kanpoko baliabideetan**, eta horri lagundu dio **aurrezki berria geureganatzeko** erritmo errekorrak, **4.094 milioi** euroko sarrerekin, stock osoaren % 5,5.

Negozioaren bilakaera positiboari **eraginkortasuna % 50etik behera hobetzea eta kostuei eustea** gehitu zaizkio, ustiapen-gastuak % **1,4** hazi baitira, KPlaren oso azpitik. Merkatuan nagusi den ziurgabetasunaren aurrean, kreditu- eta higiezin-**saneamenduen** maila zorrotzari eutsi zaio, eta **232,3 milioi** euro bideratu dira horietara.

Ekitaldian zehar hainbat ekimen abiarazi dira Kutxabanke bezeroekin duen konpromisoa berresteko. Ildo horretan, COVIDaren krisiak kalteturiko familientzako eta enpresentzako laguntzak mantendu egin dira, adinekoentzako kutxa-zerbitzuaren ordutegia luzatu egin da, eta jardunbide egokien kodeari atxiki zaio Bankua, hipoteka-kuoten igoeraren ondorioak arintzeko helburuaz.

Konpromiso hori sinatu aurretik, azken urtean, Kutxabanke berriro negoziatu ditu zailtasunak dituzten pertsonak eta familiek sinatutako ia **2.000 hipoteka-mailegu** baino gehiagoren baldintzak, eta aukera eman zaie eskatzeko kredituen amortizazioaren ordainketan gabealdiak, kuotak eramangarriago egiteko epeak luzatzea, edo birfinantzaketak eskaintzea, konponbide askorekin.

## Hirugarren kudeatzailea harpidetza garbietan


Kutxabanke **administratutako bezero-baliabideak % 1,7** hazten jarraitu dute, **75.001 milioi** euroraino, balorazioetako efektuaren eragina izan duten arren.

Kutxabank Taldea harpidetza garbi gehien dituen **hirugarren erakundea** izan da, **2.600 milioi** euroekin guztira, merkatuan sartu diren harpidetza garbi **guztien % 15** baino gehiago.

Taldeak **oinarrizko 39 puntutan hobetzea** lortu du **inbertsio-funtzen merkatuan duen kuota**, inbertsio-funtsetan ondarea % 3 baino gehiago hazi baita, sektorean % 3,6 jaitsi den bitartean.

**Kutxabank Taldeak 21.000 milioi** euro baino gehiago ditu gaur egun inbertsio-funtsetan kudeatuta, eta bere kuota **% 7tik** gora igo du, aurkako merkatu-testuinguruetan hazten den aholkularitza-eredu bati esker.

Inbertsio funtsetan merkatu-kuotaren bilakaera (%)



Banakako aurreikuspeneko produktuen bilakaera ere oso nabarmena izan da. Taldeak kudeatutako **BGA**Eek lidergoari eutsi diote, % **48,2**koa baino merkatu-kuota handiagoarekin.

## Kreditu-inbertsio produktiboa apur bat hazi da

Kreditu-inbertsio produktiboa **46.519 milioi** eurotik gorakoa izan da, hau da, % **0,7**ko igoera, Banka Instituzionalak eta Enpresetarako Bankak osatzen duten **Handizkako Bankako** jarduerak bultzatuta bereziki.

**Xehekako Bankan**, hipoteka-mailegu berrien errubrikak **3.173 milioi** euroraino egin du aurrera 2022an. Hipoteka-negozioak merkatu-kuota naturalen gainera mantentzen ditu bere kuotak, nahiz eta ingurunea oso lehiakorra izan.

**Kontsumorako mailegu** berrien kontratazioa **552 milioi** eurora iritsi da, hau da, % **11,5** handitu da 2021ekoaren aldean, % 8ko aurrerapenarekin **Saltegi Kredituan**.

## Enpresetako finantzaketa

Bere enpresa bezeroei bideratu dien **finantzaketaren saldoa** egonkor mantendu da, **2.173 milioi** eurora iritsi da, eta berankortasuna kontrolpean izan du, testuinguru-makroekonomia gorabehera.

Kutxabankek eutsi egin dio negozio-arlo horren indarrari, eta **aktibo finkoaren** finantzaketan goranzko kurbari eutsi dio, % **40 hazi** eta **339 milioi** eurora iritsi delarik.

Bestalde, **aktibo zirkulatzailen** finantzaketa-eragiketen, enpresa-negozioaren bilakaerarekin zuzenean lotutakoen, saldoa % **19 hazi** da, % **2,9 deskontu komertziala**, eta % **12,6 kanpo-merkataritzako** eragiketen fakturazioa.

## Aseguru-jarduera

Kutxabank Segurosek **115.000 poliza berri** banatu ditu 2022an.

Aseguru-katalogoko produktu guztiek igoera nabarmenak izan dituzte, bereziki aipagarria **heriotzen** arloan (% 21 igo da), kontsumo-maileguekin **konbinatutako ekoizpenean** (% 6 hazi da) eta **aldi baterako bizitzan** (% 5 igo da aurreko urtearen aldean).

Kutxabank Segurosen poliza-stocka **925.000koa** da, eta jarduera horrek aldi honetan guztira **172,6 milioi** euroko diru-sarrerak ekarri ditu Taldearen emaitza-kontura, % 7,7 gehiago.

## Sektore osoko berankortasunik txikiena

Kutxabank Taldearen **zalantzazko aktiboen** saldoa **686 milioi** eurokoa da, 2022an **256 milioi** euro, % 27, murriztu ondoren.

Kutxabankek bere bezeroei mailegu arduratsuak, beren ordainketa-ahalmenera egokituak, eskaintzeko konpromisoa du eta, horren ondorioz, Taldeak Espainiako finantza-sistemako aktiboen kalitaterik onena du, **berandutza-ratioa** % 1,37 baitu, sektoreko batez bestekoaren oso azpitik, abenduan % 3,54koa baitzen.

**Covid neurriek ukituriko zorroei** dagokienez, Kutxabankek finantza-sektoreko berankortasun-tasa apalenetakoa du: % 4,1 luzamendu-zorroaren kasuan eta % 1 abalaturako finantzaketaren kasuan, bi kasuetan sektorearen batez bestekoaren oso azpitik.

### Adierazle nagusiak

#### Errentagarritasuna

2022

ROA  
**% 0,5** (+17op)

ROTE  
**% 6,1** (+205op)

Eraginkortasuna  
**% 48,3** (+494op)

#### Finantza-sendotasuna

Berankortasuna  
**% 1,37** (-0,48op)

CET 1  
**% 17,6**

MREL  
**% 21,0**

## Salmenta digitalak % 43raino igo dira

Gaur egun, Kutxabank Taldeko bezeroen % **60,4 erabiltzaile digitalak** dira, eta kalitatezko urrutiko zerbitzua dute, Taldearen lurralde naturaletan bulego-sare handienarekin osatzen dena.

Produktuak eta zerbitzuak kontratatzeke orduan, Kutxabankeko bezeroek gero eta gehiago aukeratzen dute Banka mugikorra eta Online banka erabiltzea. **Kanal digitalen bidezko salmentak** guztien % **43,2** dira gaur egun.

Ohikoa denez, **Banka mugikorra** da urruneko zerbitzuen artean kanal gogokoena, eta **sarrera guztien % 80,5** suposatzen du.

## Kudeaketa-eredu jasangarria

Kutxabankek bat egiten du erregai fosilekiko mendekotasun txikiagoa duten energia garbiagoetarantz trantsizioa egiteko beharrarekin. Bankuaren konpromisoa 2022an aitortu da **Sustainalytics-en ratingaren bidez (*negligible risk* edo “arrisku mespretxagarria”)**, edo Europako Banku Zentralak egin duen **estres klimatikoaren lehen testean** lortutako posizionamenduaren bidez.

Kutxabankek, 2022an, **853 milioi** euro bideratu ditu Bankuaren bezero partikularrek **energiari dagokionez eraginkorrak diren etxebizitzak** finantzatzeko, **Hipoteka Berdea** delakoaren bidez, eta hori hipoteka-ekoizpen berriaren % **27** da, baita ere horien babesa ‘**Aseguru Berde**’aren bidez, eta hor **poliza berrien** bolumena % **2,5** hazi da aurreko urtearen aldean.

Segmentu ‘berde’an onartutako **kontsumorako maileguen** bolumenari dagokionez, **16,6 milioi** eurora iritsi da, 2021ean baino bi aldiz gehiago.

Enpreetan eta erakundeetan espezializatutako dibisioek **1.514 milioi** euro baino gehiagoko eragiketak onartu dituzte **ekonomia berde eta jasangarriaren** barruan sartutako inbertsioetan. Inbertsio horiek energia berriztagarriak sortzeko eta erabiltzeko proiektuak, mugikortasun jasangarriaren alde egiten duten jarduerak, edo etxebizitza sozialak, babestuak eta energetikoki eraginkorrak sustatzen dituztenak bultzatu dituzte, besteak beste.

Guztira, finantza-taldeak **2.384 milioi euro** baino gehiago bideratu ditu 2022an **finantzaketa jasangarrian**.

## Emaitzen kontua

Emaitzen kontuko **marjina nagusi guztiek bilakaera ona** izan dute epealdi honetan.

Banku negozioaren "**core**" **sarrerak** nabarmendu dira, % **8,8ko** hazkundea izan baitute, guztira **1.268,4 milioi** euro, **zerbitzuen, aseguru-jardueraren eta aktiboen kudeaketaren diru-sarrerek** bultzatuta, % **3,5** aurrera egin dute oro har.

**Interes Marjinak** goranzko joerari eusten dio, **641 milioi** euro ingurura iritsi da.

Enpresa partaidetuen zorroak emaitzei eginiko ekarpen garrantzitsua, batez ere dibidenduen ordainketaren bidez eta bazkidetuen ekarpenaren bidez, **116,3 milioi** eurokoa izan da.

Ondorioz, **Marjina Gordina 1.270 milioi** eurotik gora kokatu da, 2021ean baino % **11,7** gehiago.

Kutxabankek bere **eraginkortasuna hobetzeko** eta **administrazio gastuak murrizteko** ahalegin garrantzitsua egiten jarraitu du, hornidurak indartzen jarraitu duen bitartean.

Gastuei eusteko egin duen ohiko ahaleginak azaltzen du Kutxabanken eraginkortasunak izan duen hobekuntza. **Ustiapen gastuak** % 1,4 hazi dira, eta **Ustiapen Marjina 657,3 milioi** eurora iritsi da, % **23,5** gehiago.

Gastuen bilakaera onak, diru-sarrera errepikakorrek sortzeko gaitasunarekin batera, **eraginkortasun ratioa** % 50etik behera kokatu du.

Taldeak egindako zuhurtzia goreneko kudeaketaren ildotik, eta zalantzazko aktiboen bolumena murrizteaz gain, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboen saneamendu-maila zorrotzari eutsi zaio, partida horretara **232,3 milioi** euro bideratuta. Horrela, Kutxabankek zalantzazko aktiboen **estaldura ratioa** % **125era** arte igo du.

Taldearen **irabazi garbia 330,5 milioi** eurora iritsi da, 2021ean baino % **52,7** gehiago, hala ere 2019an pandemiaren aurretik lortutako etekinen oso azpitik.

## Kutxabank Taldearen emaitzak, 2022ko abendua

Milioi eurotan	2022ko abendua	%Δ
Interesen Marjina	640,7	14,6
Zerbitzuen sarrerak	477,4	1,3
aseguruak	150,3	11,1
<b>Banka negozioaren core sarrerak</b>	<b>1.268,4</b>	<b>8,8</b>

Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	116,3	91,6
Beste ustiapen emaitzak	-114,3	27,9
<b>Marjina Gordina</b>	<b>1.270,4</b>	<b>11,7</b>
Ustiapen gastuak	-613,1	1,4
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>657,3</b>	<b>23,5</b>
Saneamenduak eta narriadurak	-232,3	-16,7
Beste irabazi eta galerak	32,2	-22,1
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>457,3</b>	<b>55,1</b>
Zergak eta bestelakoak	-126,8	61,6
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>330,5</b>	<b>52,7</b>